

BERRIGARA

12+1 zenbakia

Jardun elkarte, Bergara

1991, martxoak 15

Joxe Itxumendirekin berriketan



Gaztelu :

Hamabost urte
txuri-urdin jantzita
(Koadernillo berezia)



Ramones:

Igandean, 10etan,
Txibiston



Txirrindularitza:

Asteartean, XVII.
Gorlara igoera

VECTRA

Besteek desioak besterik topatzen
ez dituztenean zuk
errealitate finkoak
aurkitzen dituzu.

BEREHALAKO
ENTREGA



TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 46
BERGARA (Guipuzkoa)

Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2

Tfnoa: 79 05 86

DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI
GARAIrako kontzesionaria

Denda-sare Ofizialak

OPEL 
Esperientziagatik hobeak



ARGAZKI

BARRENKALE 16

Tfnoa: 76 20 66 BERGARA

**IRUBIDE
TABERNA**

Bazkariak, gosariak,
afariak, etab.

Urteaga 9 Tfnoa: 76 25 69

AGIRREBEÑA

Oinetakoak
Erropa denda
Lenzeria

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29 BERGARA

FESA

Garraioak

Herrian eta Estatuan zehar
mota guztietako garraioak.

Tfnoa: 76 21 38 - 76 42 22 BERGARA

LAZKANO

oinetakoak

BARRENKALE 15

BERGARA Tfnoa: 76 25 03

OILAGORRA

TABERNA

Barrenkale 21 BERGARA

I
Z
O
Z
K
I
A
K



I
Z
O
Z
K
I
A
K

Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22

M U G I C A

BURDINDEGIA

Bidekurutzeta 8

Tfnoa: 76 28 67

BERGARA

LONBIDE

OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA



VID-ART


Bidriera artistikoak

Belanbide z/g. BERGARA

BIDRIERAK - MURALAK - ISPILUAK
KRISTAL BISELATUZKO ATEAK - etab.

AZOKA
PLAZA

Frontoirako bidea



Autobus
geltokia

VID - ART
NINIKI LAGUN
ARO

**BIDRIERA ARTISTIKOEN
1.ERAKUSKETA IRAUNKORRA**

FABRIKAKO PREZIOAK DITUGU

Erakusketa:

Astelehenetik Ostiralera, 11 - 3 eta 17 - 20
Larunbatetan 11 - 3

**Azal eiguzu zure ideia
VID-ARTEk egingo dizu.**

Enkarguak eta abisuak:

Tfnoa: 76 23 30 - 76 41 54

Fax: 76 41 54 (Bulego orduetan)
9 - 14 eta 16 - 20

BONOFOTOA

BERRIGARA

Jardun Elkartea

1991, martxoak 15



M. A. Elkorbereibar



Juana Gabilondo

Aurreko *BONOFOTO*aren erantzuna, Arginzain Txokoa genuen. Jende askok bidali zigun erantzun zuzena. Guztien artean zozketa egin, eta 10.000 pztako saria aldameneko argazkian ikusten duzuen Juana Gabilondorentzako izan zen.

Zorionak irabazleari!

Eta besteok, saiatu galdera berriaren erantzuna asmatzen!

Zein da hilarri honetatik gertuen dagoen Baserria?


Izena: _____ Abizena: _____ Tfonoa: _____

Moztu paper hau eta ekarri astebete baino lehen: **BERRIGARA**

**Errotalde Jauregia
20.570 Bergara**

Oharra: Asmatzailerik azalduko ez balitz, saria hurrengo *BONOFOTO*orako gordeko litzateke, **FOTOPOTEAN**

GIARTZU



GIMNASIOA

BONI LASKURAIN 3, ETXABEA

Tfnoa: 76 35 71

BERGARA

BERGARAKO AZOKA

<p>JUANITA MORENO</p> <p>Arraindegia</p> <p>Tfnoa: 76 12 54 Azoka: 76 02 44</p>	<p>GABILONDO</p> <p>Harategia</p> <p>Azoka: 76 26 98 Etxekoa: 76 26 53</p>	<p>JANARI</p> <p>FRESKOAK</p> <p>AUKERATUAK</p>	<p>LURDES</p> <p>Harategia</p> <p>Esneko Moxala Tfnoa: 76 12 17</p>	<p>IZOTZ</p> <p>Konjelatuak Errefrijeratuak Marskoa</p> <p>Tfnoa: 76 56 91</p>
<p>MERTXE</p> <p>Oilaskoak Urdaitegia</p> <p>Tfnoa: 76 54 67</p>	<p>YANIRE</p> <p>Frutadenda</p> <p>Tfnoa: 76 52 34</p>	<p>LA BERMEANA</p> <p>Arraindegia</p> <p>Tfnoa: 76 15 16 Etxekoa: 76 00 48</p>	<p>PATRI</p> <p>Harategia Txemikitegia</p> <p>Tfnoa: 76 02 20</p>	<p>PRIMI</p> <p>Arraindegia</p> <p>Azoka: 76 15 90 Poligonokoa: 76 21 91 S. Antonikoa: 76 21 08</p>

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara
Tfnoa: 760397

Laguntzailea: Bergarako Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkoroberezibar

Erredakzioa:

Jon Andueza. Eneko Azkarate

Maketazioa:

Edume Arenaza. Jon Andueza

Publizitatea eta harpidetzak:

Ignazio Irigoien. Edume Arenaza
Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua: Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan
Martin Elexpuru

Kolaboratzaileak: J. Oregi, A.

Urzelai, Mariipi Laskurain, Olaia Inza,
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel
Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel
Elkoroberezibar, Josune Iñarra eta
Xabier Aranburu, Aitziber Aretxaga
eta Ainhoa Bikufia

Argazki laborategia: I. G. Landa, A.

Gallastegi, B. Cantero, M. Leturia, K.
Retolaza, J.A. Eguren, J.I. Millan, J.
Aguayo, R. Vicente, J. Tabares, J. A.
Jauregi eta Kifitu

Komikia eta marrazkiak Josu Okina

eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofati)

Banaketa arduraduna:

Txantxangorri Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada 2.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta eri-
tzien erantzunkizunik.



15 OSTIRALA

- **Zinea:** Obrak Novedades aretoan.
- **Erakusketa:** Kultur Etxean, Igandera arte, Jose R. Gantxegiren pintura, eta Xabier de Zerioeren eskultura erakusketa.
- **Goardiako farmazia:** Puy (Barrenkalen)

16 LARUNBATA

- **Zinea:** Obrak Novedades aretoan.
- **Pilota partiduak:** Frontonian, 4.30etan hasita, honako neurketa hauek ikusteko aukera: **Arteaga-Gorostiza / Ariznabarreta- Maiz II** (Gorostizaren azken partidua profesionaletan); **Retegi II-Retegi IV / Alustiza -Zezeaga;** eta emanaldiarekin bukatzeko, **Ansoategi- Mendia / Tolosa III-Unsain.**
- **Futbitoak:** Kiroldegian, goizeko 9etan hasita, kuadrila arteko txapelketako partiduak.
- **Goardiako farmazia:** Egunez: Guallar (S Antonio) Gaeuz: Azkoaga (Arrasaten)

17 IGANDEA

- **Zinea:** Obrak Novedades aretoan
- **Futbitoak:** Kiroldegian, goizeko 9etan hasita, kuadrila arteko txapelketako partiduak.
- **Dantzaldia:** 6.30etan, plazan, *Iosu eta lokin.*
- **Kontzertuak:**
 - *Ramones*, gaueko 8retan Txibiston.
 - *Anhrefn*, Soraluzeko gaztetxean.
- **Goardiako farmazia:** Egunez: Guallar (S Antonio) Gaeuz:Español (Arrasaten)

18 ASTELEHENA

- **Zinea:** Obrak Novedades aretoan.
- **Goardiako farmazia:** Egunez: Estella (Matxiategi) Gaeuz: Corcuera (Arrasaten)

19 ASTEARTEA

- **Txirrindularitza:** XVII. Gorrara Igoera, 11.30etan hasita.
- **Futbola:** Preferente mailako Bergara eta Trintxerpe taldeen arteko norgehiagoka. Agorrosinen, arratsaldeko 4.30etan.
- **Kontzertua:** Novedades aretoan, eguerdiko 12.30etan hasita, Bergarako Udal Musika Bandaren emanaldia.

- **Goardiako farmazia:** Egunez: Mozos (San Pedro) Gaeuz: Irizar (Arrasaten)

20 ASTEAZKENA

- **Hitzaldia:** Eroskiko Kontsumitzaileen Elkartek antolatuta, *Janariak garbitasunez erabiltzerakoan* gaiari buruzko hitzaldia; Kultur Etxean, 3retan.
- **Goardiako farmazia:** Egunez: Camacho (Bidekur) Gaeuz: Amezua (Arrasaten)

21 OSTEGUNA

- **Hitzaldia:** Eroskiko Kontsumitzaileen Elkartek antolatuta, *Kontsumoa eta kontsumitzailea* gaiari buruzko hitzaldia; Kultur Etxean, 3retan.
- **Goardiako farmazia:** Egunez:Puy (Barrenkalen) Gaeuz:Ruiz (Arrasaten)

Aukeran...

Ramones :
Igandean, Txibiston,
8retan hasita.
2.000 pzta. sarrerak
aurrez erosiz gero, eta
2.300 takilan.
On egini!

KIZKUR



**Ileapaindegia
Solariuma**

Bolu 51 Tfnoa: 76 50 32 BERGARA



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99

ETXAGI

Afariak
Bazkariak
Gosariak
Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua

JATETXEA

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

IRAURGI

. Ateak . Leihoak
. Zoruak

Kruz Gallastegi 7 Tfnoa: 76 03 96
BERGARA



**Akupuntura eta
masajista**

T. Aranzadi 2, Tfnoa: 76 30 08 BERGARA

GANBARA

Berezitasunak:
Pintxoak eta
Kafea kremarekin.

Irala z / g Tfnoa: 76 55 75

T
B
E
R
N
A



BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14



Kutsadura dela eta:

Ni San Juan auzoko biztanle bat naiz, eta gutun honen arrazoia auzo honetan dugun kutsadura maila salatzea da. Azken urte hauetan auzo hau industria gune bihurtu da, bertan kalean kokaturik zeuden hainbat lantegi eraiki direlarik.

Lantegi hauek, lehendik zegoen kutsadura maila igo egin dute. Lehen galeperretako usain txarra eta euli pila jasan behar izaten bagenituen, orain berriz Ibili lantegiak botatzen duen pintura usaia da. Usai hau inguruan dauden etxebizitzetan askotan jasan ezina bihurtzen da, nahiz eta leihoak itxiak eduki.

Usainaz gain Ibili Lantegiko tximiniatik pintura gorri bat ere irtetzen da, eta hau lantegiko tximinietan eta teilatuan ikus daiteke.

Zergaitik ez da ezer egiten holako kasuetan? Ezin daiteke usain hau gutxitzeko zerbait egin?

Miren A.

Berrigararen oharra:

Datorren astean, San Jose Zubia dela eta, ezohizko zenbakia jasoko duzue etxean: bailaran euskara bultzatzeko dauden elkarte eta komunika-bideei buruzko 12 orrialdeko lana kaleratuko dugu.

29an, Ostiral Santua, ez dugu Berrigara aterako. Apirilaren 5ean itzuliko gara normaltasunez zuon etxeetara.



• ERITETXEAK

Osasun etxea 76 10 82
Larrialdiak 76 12 94
Arrasateko ospitalea 79 53 00

• GURUTZE GORRIA

Bergara 76 55 76

• DYA

Antzuola 76 62 91

• ANBULANTZIAK

Bergaran 76 13 59

Gipuzkoako anbulan. 45 87 44

• SUHILTZAILAK

Zubillagan 78 28 00

• POLIZIA

Udaltzaingoa 76 14 69

Ertzaintza 76 53 40

• GARRAIOAK

P.E.S.A. 76 16 46

Taxiak 76 19 50

• HIRUGARREN ADINA

Mizpirualde 76 13 68

Aitonak 76 21 40

• BESTELAKO ZERBITZUAK

Udaletxea 76 39 42

Epaitegia 76 14 72

Kiroldegia 76 56 41

Igerilekuak 76 20 51

Kultur Etxea 76 44 46

IMI 76 55 49

Tiira ba!



□ Omenaldia jubilatuen egoitzan

San Jose egunean, jubilatuen egoitzan, omenaldia eskeiniko zaie 1901 eta 1902 urteetan jaiotako bergarrei. Eguerdiko 12etan, Santa Marinaran meza entzun eta gero, ordubatean luntx berezia egingo da eta opariak banatuko zaizkie omenduei.

□ Asteburuan zine barik?

Astean zehar Novedades aretoan obretan ibili ondoren, beharbada astebururako ezin izango dira zineko ateari ireki, lanak oraindik bukatu gabe daudelako. Zabaltzekotan, larunbat gauean.

Horrela izango ez balitz, hurrengo astera arte ezingo ditugu Novedades berrituan pelikula berriro ikusi.

□ Trikitilarien eguna Elgetan

"Elgeta" soinu-jole famatuaren omenez, Trikitilari Eguna ospatuko da domeka honetan. Goizeko 10.30etan hasi, eta egun osoan zehar berrehun trikitilari arituko dira Elgetako kaleetan giroa alaituz.

□ Antimilitaristen erakusketa

Bergarako Objeto Talde Antimilitaristak objezioari eta intsumisioari buruzko erakusketa bat antolatu du martxoak 22, 23 eta 24 egunetarako. Pol-Poleko aretoan, argazki erakusketaz gain, diapositiba eta bideo emanaldiak izango dira.

□ Lurraldea bira

Asteazkenean, Leizarango autobidearen proiektu alternatiboa aurkeztu zuten Bergaran.



✓ "Olaso torrea" fundazioa

Joan den asteburuan, Bergara, Donibane Lohitzune eta Oiartzunen makina bat ekitaldi eraman ziren aurrera Telesforo Monzonen heriotzaren X. urteurrena gogoratzeko.

Asteburuan ere, eta Telesforo zenaren emaztearen ahotik, egitasmoo berezi baten berri jaso genuen. Duela bi urte, Maria Josefa eta bere lagun batzuk "Olaso Torrea" izeneko fundazioa sortzeko lanetan hasi ziren. Pausu gehienak emanda daude. Etxea goitik behera berriztu dute (nahiz eta oraindik konponketa batzuk falta diren), eta aurrerantzean Telesforok hainbeste maite zuen euskal kulturaren gordeleku bihurtuko da. Historia, euskara edota literaturari buruzko hitzaldiak, eta musika emanaldiak eramango dituzte aurrera. Liburu bildumak ere aurkituko ditugu bertan.

Hondare aberatsa, beraz, Bergarako herriarentzat.

Biztanleen errolda

Udaletxean, eta martxo guztian zehar, biztanleen errolda edo padroia berritzen ari dira. Lehenengo hamabostaldian, bergararren %30a pasatu da bertatik.

Joan den igandean mahaiak Angiozarren jarri bazituzten, Domeka honetan Osintxura eramango dituzte.

Gogoratu errolda berrizteko orduan familiako guztien karnetak eta famili liburua erakutsi behar direla.


Bestalde, Udalarekin harremanak euskaraz izateko aukera ere eskaintzen da. Horretarako, papertxo bat betetzea besterik ez da eskatzen.



HALTZARI
FAGOR ALTZARIEN BANATZAILEA
SUKALDERAKO ALTZARIAK
BOLU 24 Tfnoa: 76 30 57
BERGARA

ARTISTAK
Erakusketa
Nahikari

ARTISAUTZAKO IZOZKIA
GOXO-TOKI
D. Irala, 3 - Tlf. 761235
Matxiategi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA



✓ Udalak terrenoak erosi

Joan den astelehenean, Udalak FEVE (bide estuko trenbideak) enpresari, Maltzaga-Zumarraga antzinako trenbide sareko, Mekolaldetik Antzuolarainoko terrenoak erostea erabaki zuen. 22 miloi ordaindu beharko ditu 6,5 kilometroko luzerako tarteagatik. Denetara 102.000 metro karratuko lursailak biltzen dira luzera honetan. Hauetatik 75.800 metro karratu trenbidekoak dira eta gainontzekoak, bere garaian enpresak inguruko jabeek kendutakoak. Udalak eskuratuko dituen lur sailetatik, 4.000 metro karratu Mekolaldeko aintzinako geltokikoak dira eta beste 22.500 metro karratu Goiko Estaziñokoak. Hemendik aurrera trenbidea pasealekutarako erabiltzeko egokituko da, eta inguruetako lursailak beren jabeek bueltatuko zaizkie. Edifizio batzuk bota egingo dira, beste batzuk berriztu, eta beste bat, Goiko Estaziñokoa, bizileku bezala utziko da. Asteleheneko plenoan ere, beste gai batzuen artean, ludoteka berri bat zabaltzeko aukera aztertu zen. Oraindik, dena den, ez da erabakirik hartu, eta gaiak mahai gainean segituko du.

□ MAYC

Asteazken eta ostegun honetan egun osoko greba egin dute MAYC-eko langileek.

Enpresako zuzendaritzak bere jarrera aldatzen ez duen bitartean, mobilizazioekin jarraituko dutela adierazi dute sindikatuek.

□ Beka Antzuolan

Antzuolako Udalak herri-jolasak, ahoz-ahoz jasotako kantak, kontuak, esaerak etab. biltzeko 240.000 pzta.ko beka emango du. Eskaerak banaka edo taldeka egin daitezke. EGA titulua beharrezkoa da, eta izen emateko epea hilaren 25era arte egongo da zabalik.

□ Kontzertua

Bergarako Udal Musika Bandak, kontzertua eskeinitiko du San Jose egunean, eguerdiko 12.30etan, Novedades aretoan.

Gogoratu, bestalde, hilaren 31n Valencia-ko Chulilla herrira joango direla emanaldia burutu asmoz.

Badator Korrika

Martxoaren 15ean

Gasteizen hasi, eta 24ean Baionan bukatuko da aurtengo korrika.

VII. edizioa izango den hau, martxoaren 22an pasatuko da Bergararik, goizeko 11k inguruan. 9-10 kilometro inguru betetzea tokatu zaigu bergararroi, eta momentuz Euskal Herrian Euskaraz, Jardun Elkartea, Labegarrietako jai batzordea, Xamatx dantzataldea, HB, UNED, Aranzadi ikastolako Zuzendaritza Batzordea, Pol-Pol mendizale taldea, Osintxuko Batzordea eta Pol-Pol eta Deportivo tabernak apuntatu dira lekukoa eramateko.

Egitarauaren barruan, bestalde, aipatu 21ean jaigiroa hankaluze, trikitilari eta dantzariekin egindako kalejiran gauzatuko dela. 24ean, berriz, autobusa egongo da Baionara joan nahi dutenentzat.

Ea ba, hasi entrenatzen, badator Korrika eta!

TOKI-EDER

T a b e r n a

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi Tfnoa: 76 51 84 BERGARA



GAZTELY S. A.
BURDINDEGIA

Mintegi 1

Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50

BERGARA

Beheko

Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

ayastury

JANTZIDENDA

BARRENKALE, 30
Tfnoa: 76 22 68
BERGARA

Ramones

(Gabba, Gabba Hey!)

Datorren igandean (festa borobiltzeko larunbat baten hobeto, baina...) *Ramones* talde amerikarra Bergarako Txibisto dantzalekutik pasatuko da eta ziur nago talde honek izango duen harrera ikaragarria izango dela; *Ramones*, azken finean, *Ramones* bait dira. Arrazoiak?

Lehenengoa generazionala da. Datorren igandean han bilduko dira bi belaunaldi.

Ezin ahaztu *Blitzkrieg Bop* (Ai, o, let's go!... gogoratzen?) kantua argitaratu zenetik hamasei urte joan direla. Beraz, kontzertu honekin alde batetik gazteenak aparteko aukera izango dute orain dela gutxi deskubritu duten talde jator eta martxosoa etxean bertan ikus eta entzuteko. A ze flasha!

Ausartenek ere aukera ederra izango dute '*Pogo-destroi*' batzuk dantzatzeko.

Bestalde, *Karroza* aroan sartu berri gaudenok atzekaldekoko lerroetan elkartuko gara, kantu mitiko horietatik zer gelditzen den konprobatzeko, ia gure taldeak Olinpoko jainkoak bezala bizirik dirauen.

Harriztekoa, baina hamasei

urte pasatu dira, eta guretako mitikoa zena gaur etxean bertan daukagu (berandu xamar, ene ustez); eta jolastokietako disko-makinan entzuten genuena (a zer nolako burrukak arduradunarekin bolumena igotzeko), igandean Watioz blai entzungo dugu.



Beste arrazoi bat harrera ikaragarri horrentzako, *Ramones* talde *komodin* bat izan dela beti. Une guztietarako aproposa izan ohi da euren musika, eta horrek, nolabait esateko, afektibitate sentimentua sortarazi du jendearengan. Ondo jausten den talde horietako bat dugu duda barik.

Suposa dezagun aste bukaera baten jendea martxoso dabilela, tabernatan nabari da girotxo hori. Kamareroak zer egin? Ba *Heroes del silencio* pintxatu beharrean *Ramones*

jarri. Bat dator bullarekin, ez?

Edo suposa dezagun has-tapenetan dagoen talde bat entseiu-lokalean zeharo asperturik dagoela, ez dakitelako zer jo. Errazena? *Ramonesen* bertsio bat egitea: Hiru akorde, riki-raka, txunpa-txunpa, punteorik ez eta zera baino gustorago.

Donostiara goaz, eta bueltatxo bat ematen dugu. Eskapateetan begira, hori ikara bakeroak '*roto*' batekin ez dakit zenbat mila pezeta balio dutela ikustean. Non arraio sortu da moda hau? Ba bai, peña, bai; erantzuna *Ramones* taldean aurkituko dugu. Hamasei, bai, hamasei urte dira Joey, Dee-Dee eta besteak '*roto*' ak modan jarri zituztenetik. Gertatzen dena zera da, lehen makarra, zikin eta ai ama! esaten zuten horiek orain kontrakoa pentsatzen dutela, bakero horiek *andergraun* eta modernuek direla, *Nuebayorken* moduan.

Dena den Joey Ramone munduko pijo haundienak bakero '*roto*' ekin dabilatzala jakin zuenean, *Nuebayorken* Arte Modernoaren museora bidali zituen bereak, eta harrigarria bada ere hantxe daude, ondo zainduta.

Ramonesek estetika modu bat markatu du, eta asko gai-



nera; gaur egun zapatilak, bakeroak eta larruzko txupak rockaren identitate ikur dira.

Gauzak horrela garbi dago nolabaiteko afektibitate sentimentua dagoela talde honenganako, eta askotxo zerbait sor bagenioke bezala sentitzen gara. Hainbeste gauza lapurtu dizkiegu!!




Igandean, igandean elkartuko gara Txibiston, aurrean, atzean, goian edo behean (kabitzen bagara, noski). Aurrera zoaztenok, dena den, kontuz ibili, ez ote zaizuen Joey 'Hankaluze' Ramone gainera eroriko! Eta gaztetxook, argi ibili itxulapikoekin!!

Pepe Arregi

(*Eskoriatza* taldekoa)

URRATS
oo Kafetegia

Ibargarai Tfnoa: 76 52 92
BERGARA



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

ASAGABASTER JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabala

Gabiria 9, Tfnoa: 79 27 27 - 79 13 55 ARRASATE

Joxe Itxumendi

Haizeak eguraldiaren sekretuak ekartzen dizkigunean

Joxe Badiola, Itxumendi gaitzizenaz ezaguna. Martxoaren 2an 65 urte bete eta jubilatuta egin zaigu. Horren berri izan bezain laister berarekin harremanetan jarri, eta Elosuko Goiko Benta baserrira igotzeko esan zigun, eguraldi ederra egiten zuela eta... Hantxe elkartu ginen berarekin, eta berriketaldian zehar gizon bitxi honekin oroitzapen eta esperientzia ugari konpartitu.

“1926ko martxoaren 2an jaio nintzen hemen, orain hizketan ari garen etxe honetan. Hortara, 65 urte ditut gaur egun, eta bizitza osoa baserri honetan eman dut.

Bi egun tardatu omen nituen jaiotzen, gainera. Nere ama *sentiruta* egon zen oso. Eskerrak bailarako sasi-komadronea batek lagundu zion...”

□ Urte guzti hauetan, seguruenik ogibide ugari ere izango zenituen...

“Bai horixe. Hamabost urtekin hasi nintzen ikatzgin lanean aitarekin. Hiru urte eman nituen Donostian soldaduska egiten, eta bertatik bueltan ere ikatzgin jarraitu

nuen hogeitahemezortzi urtera arte. Gero kaminero lanetan sartu ginen aita eta biok, eta Bergara aldean, adibidez, hiru urte eman nituen bideak egiten. Gero Loiolako Herri Irratian hasi, eta hogeitalau urte eman ditut bertan”.

□ Zeintzuk izan dira zure lanak Herri Irratian?

“Ba eguraldiaren partea eman, eta horrez gain Itxumendiko antena eta aparatoen ardura eman zidaten”.

□ Nolatan ekin zenion eguraldiaren pronostikoak emateari?

“Eguraldiaren kontua txikitatik ikasi nuen. Bost urte inguru nituenean, han ikusten nituen alboko baserriko aita



Joxe Itxumendi, Herri Irratiko antena atzean duela.

zaharra eta gure aita zaharra, zer eguraldi zetorren asmatzeko haizeari begira. *Gaur ona egingo du; ba nik ez dut uste...* hor ibiltzen ziren berriketan, eta ni, mutil koxkorra, eurei begira.

Horrela ikasi nuen lehenik. Gero, Loiola Irratian sartu, eta aldiko pixka bat, aldiko pixka bat, gero eta gehiago ikasi. Lainoak handik datozela, haizeak bestetik jotzen duela... horrela ibili izan naiz”.

□ Non aurkitzen duzu zuek eguraldiaren sekretua, hau da, zertan antz ematen diozu datorrenari?

“Haizeak nondik jotzen duen ikusi behar da, eta era berean lainoen eboluzioa arretaz jarraitu”.

□ Eta tenporak, Joxe, ez dituzu kontutan hartzen?

“Nik ez, ez gehiegi. Jende askok erabiltzen du sistema hori, tenporatan zer eguraldi gelditzen den begiratu eta

hurrengo hiru edo lau hilabeteetan antzekoa egiten omen du; baina tira, nik ez diot horri jaramon haundiegirik egiten”.

□ Zuk zeuk, sinisten al duzu parte ofizialetan, telebistan agertzen diren meteosat eta antzeko metodo zientifikoetan?

“Bueno, hori ondo egongo da Espainia osorako pronostikoa botatzeko. Baditu bere bentajak. Baina toki bakoitzean eguraldiak buelta asko ematen ditu goizetik gabea, egunean zazpi aldiz ere aldatu daiteke, eta sistema zientifiko horiek ez dute hori lantzen, eguraldia orokortasunean tratatzen dute bakarrik”.

□ Eta egiten al diezu kasurik zure antzera ibiltzen diren artzai edota bestelako pronostiko emaleei?

Normalean ez; azken finean nik neure eritzia esaten bait dut, eurek euren esaten duten moduan.

ELKAR

Fotokopiak
Enkuadernazioa
Jendearentzako faxa
Plastifikazioa
Planoen kopiak.

Harruriaga 1, Behea

Tfnoa: 76 58 16

BERGARA



□ **Ea, Joxe; zer aurre-ratuko zenuke hurrengo boláda honetarako? Aste Santu ingururako, adibidez?**

“Negua bukatu da aurretengoz. Nahiz eta oraindik euri zaparrada batzuk egongo diren, nik uste eguraldia biguntzen hasi dela. Eguzkia; eguzkia dator. Alturatanezik, ez dut uste elur gehiago ikusiko dugunik”.

□ **Beste galdera bat, Joxe. Zuk harreman estua izan duzu beti naturarekin. Eta azken urteotan, hain zuzen, jende askok salatu du gaur egungo bizimoduarekin natura hori hondatzen ari garela. Zuk zer uste duzu?**

“Nik ez dut uste. Aldaketaren bat somatzekoan, zera aipatuko nuke, gaztea nintzanean elur gehiago egiten zuela orain baino. Orduan oso normalak izaten ziren metro-tik gorako elurteak inguru hauetan; gaur egun gutxiagotan egiten du, eta egiten duenean ere apalago.

Baina zer dakit nik! Ez nuke jakingo esaten bizimodu modernoaren ondorioa den edo ez. Baliteke hainbeste kotxe eta zaborrekin kalte haundia egitea, baina mendi puntan haizeak garbia izaten jarritzen du, eta ez da hainbesteraino igertzen”.

□ **Zer sentitzen da irratitik pronostiko bat iragarri eta gero asmatzen ez denean? (Joxek barre egin du)**

“Meteorologia asunto honetan sarritan gertatzen



1974ko abendua. Joxek ikaztintzaz dakien guztia erakutsi zuen Bergarako plazan

dira halakoak. Hombrea, batzutan ondo etortzen da; txarra datorrela iragarri eta ona eginez gero norbera ere gustora gelditzen da.

Aldrebes emanez gero, ordea... Ona datorrela esan eta hanka sartuz gero... bateren bat haserretu ere egin izan zait halakoetan, batez ere uda partean; eguzkia iragarri, jendea hondartzara joan eta euri zaparradak harrapatzen dituenean...”.

□ **Elosuko baserrian bizita, inguruko zein herritan egin ohi duzu kale bizitza, hala tokatzen denean?**

“Normalean Bergaran,

gure herria delako eta lagun onak ditudalako han; baina beste aldera, Azkoiti aldera ere jotzen dugu.

Dena den, hori irtetzen naizenean. Bestela hementxe, Elosun bertan egiten ditut egin beharrekoak. Gainera zahartua ere banago, eta...”.

□ **Bukatzeo, Joxe, nola planteatzen duzu estreina-tu berri duzun jubila-zioa?**

“Hementxe geldituko gara emaztea eta biok, baserrian.

Semea eta bi alabak sarritan etortzen dira bisita egitera, eta halaxe jarraituko dugu, lasai”.

Bi pasadizo

Behin, Joxe egunero bezala Itxumendiko antenara iritsi zenean, suge bat hilda topatu zuen kaseta barruan. Joxek, harrututa, ordu batzuk lehenago bertan egondako teknikariari telefonoz deitu eta ea zertan ibili zen sugea akabatzen galdetu zion. Honek, zirau-na bat besterik ez zela erantzun. Joxek, berriz: “Zirau-na? Bai zera, metro kintzeko sugetzarra”. Eta teknikoak: “Ba suge hori hire ogepian heuan eta hi ez haiz konturatu be in”. Ohe azpian suge bat zuela, lotan gauak pasa zituela jakin izan balu Joxek...

Itxumendiko Joxek ondo gogoratzen du baita ere, harrezkero 14 urte pasa badira ere, 1977.eko ekainaren 11a, bonba batek Loiola Herri Irratiko antena txikitu zuen eguna. Gauerdiko hamabiak ziren, egunero bezala irratia emendatzera joan eta plastiko batez estalita zegoen boltsa susmagarri bat ikusi zuen. Handik alde egin eta garai hartan Elosuko apaiza zen Iñaki Larra-ren bila abiatu zen. Handik orduerdira edo Joxe, honen alaba eta Iñaki abadea berriz ere Itxumendira zijoaztenean eta antenatik ehun metro-tara zeudenean bonbak eztanda egin zuen. Antena zeharo hondatuta geratu zen arren eurok ez zuten inolako zauririk jasan. Atentadua *Batallón Vasco Español* eskuin muturreko taldeak erreibindikatu zuen.

LXUKUN
BEREZITASUNAK
 Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 51 62
 BERGARA


Jatetxea
 AURREZ ESKATUTAKO
 BAZKARI ETA AFARIAK
 Angiozar Tfnoa: 76 21 21

Mugica
GOZOTEGIA
 Artekale 3 Tfnoa: 76 51 65
 BERGARA

Aldoka Maldoka

Taberna

KRUZ GALLASTEGI
BERGARA

A. ZANGITU

Paper pintatuak-pinturak

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

ONENA TINDATEGIA

BARRENKALE 29 BERGARA

ETXE- -AUNDI

Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

KIÑU

ARGAZKINDENDA

ARGAZKILARIAK

Martxotik aurrera
Barrenkale 35ean

Tfnoa: 76 58 05
BERGARA

Gizarteak laguntzen al die benetan droga arazoa bizi dutenei ?



Isabel Oregi
33urte

Ezetz uste dut. Gaixoak dira, eta guztion laguntza behar dute, bai sendatzeko, eta bai gero lana aurkitu eta berriz integratzeko. Bestela...



Bittoriano Larrañaga
39 urte

Ez dira neurri egokiak hartzen arazoa dutenak errekuperatzeko. Droga gehiegi sartzen da, eta engantxatzen direnei ez zaie sendatzeko aukerarik ematen.



Xabier Mujika
21 urte

Aukera gutxi ematen zaie. Rolloa oso gaizki ikusita dago, eta jende hori beti markatuta gelditzen da. Lana topatzeko adibidez, gauzak oso zail izaten dituzte, eta horrela...



Izaskun Egileta
27 urte.

Neretzako ez. Nahiz eta sendatzen saiatu, behin eta berriro erortzen dira zulo berdinean. Jendea ez dago laguntzeko konzientziatuta, ez lana emateko, ez sendatzeko...

ZUR
LUR



Jostailuak Aeromodelismoa

Erdiko kale 19, Tfnoa: 79 17 87 ARRASATE

INFERNUKUA TABERNA


Mahasterreka 23

Tfnoa: 76 18 49

KILOMETROAK 91



BERGARA-URRIK 6



✓ **Kilometroak 91k badu logotipoa**

159 lan aurkeztu ziren Kilometroak 91rako logotipo lehiaketan, eta guztien artean epaimahaikoek Aitor Ibabe bergararrak egindakoa aukeratu zuten.

Ezkerreko argazkian ikusten duzuen marrazkia duzue: Pittinka Pittinka izeneko buru gorria duen K urdina.

Eskumako argazkian, berriz, egilea agertzen da. Aitorrek 18 urte ditu, eta Arrasateko Eskola Profesionalean dihardu injinerutzako lehenengo mailan. Lehenengo aldia da halako lehiaketa batera aurkezten dela, eta bete-betean asmatu duela esan behar!

"Ilusio handia egingo dit jendeak kamiseta edota pegatinetan nik asmatuako logotipoa daramala ikusten dudanean", aitortu zigun egileak. Bien bitartean, eta ordura arte, jaso zorionik beroenak, Aitor!

✓ **Errekurtsoen gidaliburua**


Begarako Udaleko

Drogomenpekotasunen Prebentzio Komunitarioaren Batzordeak kaleratu berri du aldamenean ikusten duzuen liburuska, herritar guztiei banatu asmoz.

Bertan, Bergaran antolatuta dauden erakunde, zerbitzu eta ekintza ezberdinen berri emateaz gain, hainbat helbide eta telefono interesgarri bildu dituzte.

Gidaliburu praktikoa, beraz, herri mailako ekintzatan bergararren parte hartze eta kreatibitatea bultzatzea helburutzat duena

DROGOMENPEKOTASUNEN
PREBENTZIO KOMUNITARIOAREN
BATZORDEA



ERREKURTSOEN GIDALIBURUA 1991



BERGARAKO UDALA

Zertan
dihardute
ba?

J. RAMON GANTXEGI



43 urteko osintxuarrak, 29 koadro dauzka ikusgai, Kultur Etxean igandera arte zabalik egongo den erakusketan.

Txurtzil enpresan egiten du lan. Autodidakta dugu, eta 15 urteko etenaldiaren ondoren itzuli zaigu pinturara. Paisaiak lantzen ditu gehienbat

XABIER de ZERIO



Naparroan jaiotako eskultoreak, 20 lan inguru ditu ikusgai aipatu erakusketan. 42 urte ditu, eta 24 daramatza Bergaran, San Martin Agirre ikastetxean irakasle delarik. Duela lau ekin zion eskulturari autodidakta moduan.

iRUDI

Erlojutegia

Bitxitegia

San Pedro 11,
Tfmoa: 76 51 65

ANDIZV

**Eraikuntza materialen
biltegia**

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 0141
Faxe: 76 0058 BERGARA

ERREKI

ERRETEGIA

**Txitarro eta saiheski jana
astebukaeretan**

Fraiskozuri Enparantza
Tfnoa: 76 38 51 BERGARA

Hau dok barreguria

Hemen inguruko erlojurik bikaiñena Uberako "Pistok" euki eban. Mundu guztian be gutxi haren moduko erlojurik.

- Ha zuan erlojua, ha! Harek erloju onenai be orduan hamar minutu etarazten jotsan.

"Gaur jo bihar jotsat adarra "Frekillos" kalbuai, bai...".

- Hi, Frekillos, hire bu-ruak iretargixa emuten jok.

- Eta hiriak kanposantua.

- Zer ba?

- Ba (h)ilez beteta dagolako.

Behin joan zan Fernando izeneko mutiko oker bat konfesatzera eta sartziaz bat esaten dotsa abadiak:

- Esaidak mutikua, zenbat Jangoiko dittuk?

- Hiru, jauna.

- Hiru? Astokillo galanta hi. Hiru Jangoiko orduan, e?

Gero sekulako erretolikia sartu zotsan mutiko gizajuai zeruak eta infernuak harrotuaz baiña ez zotsan



esan Jangoiko bakarria zeu-nik, ero esan bazotsan be, mutikuak ez zotsan entendi du behintzat. Amaittu ebani-an Pello bere laguna ikusi eban txandian zain. Urreratu jakon eta esan zotsan.

- Hi, abadiak zenbat Jangoiko daren preguntatzen badosk, zer erantzun bihar dotsak?

- Bat bakarria dagola.

- Bat bakarria? Nik hiru darella esan jotsat eta ixa prejidu najok eta hik bakarria dagola? Lepua bihurtukosk oilluait letxe.

Juan Martin Elexpuru

Bergarari buruzko aipamenak (4):

Agustin Kardaberaz hernaniarrak moldatu zuen Aita San Ignazioren bizitza laburra (1760 aldera idatzia, eta 1910ean argitaratua) izeneko liburuan pasarte hau irakurtzen da besteren artean:

Bigarren aldian San Franzisko Borja bere seme maitearekin Oñatitik onara Loiolako bere Aitaren etxe au ta bere burua onratzera etorri zan. Emen zeruko argi bero guzia bere espirituan irazeki ta Meza berria Abustuaren lehenean eman zuen, da

D. Joan bere seme predestinatuari komunioa eman zion, etxe santuko pintura ederrean ikusten dan bezala. Santuak egun artan usatu zuen kaliza

emengo aldarean bertan erakusten da; eta Bergaran bere arreba santak meza berrirako santuari egin zion kasulla ederra; gauza zierto jakiña da, bere lenengo meza solemnea gero jubileo andiarekin an kantatu, sermoia egin, da ezin kontatu al komunio eman zituela.

Bederatzietan meza asi eta ordu batean santuak akabatu zuen: ditzazko Bergara erri guziz nobleak Santu Borjaren mirari gogoengarriak bere onrarako oi ditu.

Azpeitin Aita S. Ignaziok eman zituen pobreza umillaren ejemploak (...) ta Borja andi umilla Aitaren gisa, Azpeitian, da erri oietan, Oñatin ta Mondragoi, Bergara, Azkoiti, Azpeiti eta erri nagusi guzietan prodijio andiak animetan egiten ibilli zan.

Jerardo Elortza

ERRETEGIA

Merzeria - Lenzeria

D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69
BERGARA

ORTZI

Erretegia

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68

**Euskalduna
Taberna**

OSINTXU

FERNANDEZ



**OIHAL PUSKAK
OIHALAK**

Tfnoa: 76 22 93 Tfnoa: 76 53 22
San Antonio 3 Ibargarai 2
BERGARA



**ILEPAINDEGI MISTOA
ESTILISTA.**

Artekale 29, Behea
Tfnoa: 76 29 70
BERGARA

Agustin Aranzabal, "Gaztelu"

1980 urteko udaran, Donostiako Errealak bere lehenengo liga eskuratu eta gero, Gazteluk bertanbehera utzi zuen futbolaren mundua.

Atzean gelditu zitzaizkion bere bizitzako hamabost urte. Zerua behatzekin ikutu ondoren agur esan zion 307 partidutan bihotz-bihotzez defendatutako elastiko txuri-urdiñari.

Urte askotxo joan zaizkigu ordutik; baina oraindik gaur, Agustinek maitasunez gogoratzen ditu Atotxako taldearekin bizitako esperientziak.

Berarekin elkartu garenean, parra-parra kontatu dizkigu bamean gordetzen dituen oroitzapenak.

Oroitzapen gazi-gozaok.

□ Azkenean bai, Errealak ligako partidua irabazi du Madrilén. Zenbatetan amests egin du Gazteluk egun horrekin?

"Guretzako beti izan da oso partidu espeziala. Nik hamaika, edo hamabi aldiz jokatu dut han, eta ezin, ezin irabazi. Aukera ederrak izan genituen, baina honegatik edo harengatik, azkenengo minutuetan beti enpatatu edo galdu.

Partidu oso inportantea izaten zen guretzat, Madrilek goi mailako taldea edukitzeaz

gain, askotan modu txarrean irabazten zigulako, existitu ez ziren penalty, falta eta antzeko komerietan.

Horregatik igandekoa ikaragarria izan da txuri-urdiñ guztiontzat. Ametsik zaharrena kunplitu zaigu.

Moral aldetik ere oso garrantzitsua da Errealarentzat, azkenean helburu hori gaintu duelako. Aurten, gainera, jokalaria oso motibatuta joan dira. Exposito berak ere itxaropen haundiak zituela komentatu zidan harantz joan aurretik, eta ez zebilen

oker, ez horixe!"

□ Jarraitzaile moduan hurbiletik segitzen duzu gure taldea. Nola ikusten duzu gaur egun?

"Harreman estua daukat Exposito, Amas, etab.ekin, asteanpare bat aldiz elkartzen gara; eta nabari ere nabari dugu guztiok azken partiduetan taldeak gora egin duela.

Momentu oso txarrak bizi izan dira denboraldian zehar. Behin negatiboen dinamikan sartuta, eta aspaldian egoera horretan egoteke gainera,

zaila izaten da erreakzionatzea. Erabakiak hartu behar izaten dira, eta nere ustez entrenatzaile aldaketa momentu proposan egin zen.

Boronat oso ona da, futbolari buruz beste edonork beste dakien gizona. Baina ekipo batek bizio batzuk hartzen dituen zaila izaten da hortik irtetzea. Orduan, nere ustez pertsonarik egokiena ekarri zuten momenturik egokienean. Expositok ederto ezagutzen du taldea, lanerako orduan gogorra da,



BOLINTXO

Kirola egiteko behar den guztia

Ibargarai 10, Tfnoa: 76 38 32 BERGARA

eta jokalariai motibatu eta ilusionatzeko ere pertsona aproposa. Karmelo Amas igotzea ere oso inportantea izan da”.

Eta noski, bikote honek lortu dituen emaitzak begi-bistan daude.

□ **John Toshacken itzulerara?**

“Ez daukat argi zer lan betetzera etorri den. Badakit momentuz ez dela ekipoan gehiegi sartzen. Orain, Exposito eta Toshack lagun haundiak dira, eta seguruenik Xabierrek kontutan hartuko ditu besteak esandakoak.

Geroari begira, ez dakit gauzak nola geldituko diren. Badirudi Johnnek manager lanak egingo dituela, fitxak erabaki, gazteak inkorporatu... ez dakit.

Dakidana zera da, bai Donostian eta bai hemendik kanpo onenatarikoa dela erakutsi duela argi eta garbi. Eta nik uste ona dela berriz ere gurekin egotea. Lan ederra egingo du. Ez da faltsukeriatan ibiltzen, irabazlearen karakterra dauka, eta hori oso ondo etorriko zaio Errealari”.

- **Zer pentsatu zenuen jokalariai atzerritarrek fitxatzeari ekin zitzaionean?**

“Ez zait batere ondo iruditzen.
Baina gauza asko hartu behar ditugu kontutan. Erreala goi mailako taldea izatera iritsi da azken urteotan. Orduan, ekipoa altura horretan mantentzeko etxeko jokalariekin ez zen nahikoa.

Seguruenik Gipuzkoan oso jende gutxi zegoen atzerritarrek ekartzearen alde, baina etorri izan ez balira taldeak behera egingo zukeen zalantza barik, eta Atotxara geroz eta jende gutxiago joango litzateke... eta bide horretatik Errealaren hondamendia hurbil edukiko genuke.



Orduan gauza asko neurtu behar dira. Gauza asko.

Dena den, etxeko jendea bezalakorik ez dago. Jokalaria asko egongo dira teknikoki oso onak, baina parean bere

✓ **Nahiz eta Boronat oso ona den, entrenatzailea aldatzeko erabakia hartu zela uste dut, ekipoak 'bizio' txar batzuk zituen eta**

koloreak bihotzez maite dituen norbait jartzen badiezu askotan ez daukate zereginik. Etxekoaren ilusioak jan egiten du bestea.

Euskaldunok, gainera, maisu gara horretan, dauka gun guztia taldeari ematen.

Nik gogoratzen dut gure garaian, adibidez, ez geniola diruari aparteko garrantziarik ematen. Guk Errealean egon nahi genuen, gure Gipuzkoa,

gure lagunak, gure herritarrak defendatzeko.

Eta noski, atzerritarrek in hori galtzeko arriskua dago”.

□ **Direnak direla, atzerritarrek taldean daude dagoeneko. Zer iruditzen zaizkizu?**

“Momentu honetan taldeak gora egin du, eta hiru hauek badute horretan zerikusirik. Baina aldrebesak ere bagara gero! Etxekoen lana ez dugu ikusten. Txaloak kanpotarrei eskaintzen zaizkie, eta etxekoei txistuak.

Gol gehienak eurek sartzen dituzte, ados; baina zer-baitetarako jokatzen dute aurreakaldean.

Gero, banan-banan aztertuz gero, Aldridge maisua dugu duda barik.

Atkinsoni etorkizun aparta ikusten diot, gaztea da, eta potentzia ikaragarria dauka. Expositok, gainera, ederto asmatu du bere tokian jartzen.

Zalantzak, berriz, Ri-

chardsonekin daukat. Ez dakit...”.

□ **Zure ustez, zer gelditzen zaio Errealari denboraldi amaiera arte?**

“Uste dut ointxe datorrela Errealaren momenturik onena. Batxea atzean utzi dute, morala goian daukate, eta ez dira berriz eroriko. Etxean arrasatu egingo du talde makaltxoak bait datoz, eta kanpoan ere aterako ditu bere puntuak”.

✓ **Ez zitzaidan batere ondo iruditu atzerriko jokalariai fitxatzea, baina ulertzen dut etxeko jokalariekin zaila zela puntaren puntan jarraitzea**

□ **UEFAra heltzeko aukerarik bai?**

“Bai, nik uste galdutako bidea errekuperatu egingo dela”.

□ **Sar gaitezen historia pixka bat gogoratzera. Zenbat buelta eman diozu Sevillako partidu famatu hari? Errealean pasatako egunik tristenak izan ziren haiek?**

“Momentu hartan, estadia buru gainera erori izan balitzait poztu egingo nintzateken, ziur.

Baina gero, ahal nuena egin nuela ikusi eta hura ahazten saiatu nintzen. Hala-ko lan batean ibiliz gero beti daukazu hutsak egiteko arriskua.

Zorte txarra izan nuen, dena den, une konkretu hartan huts harek izugarrizko transzendentzia eduki zuelako. Liga hasieran egin izan banu, ez litzateke inor akordatuko.

Jende askok bota dit aurpegira Sevillako hankasartzea, baina nola edo hala nik

ahaztu egin nuen. Ez nau gehiegi afektatu”.

□ **kompensazio gisa, gainera, hurrengo urtean historiako lehenengo liga eskuratu zenuten, oraindik ere zu tartean zeundela...**

“Urte hartan taldean zegoen giroa, batasuna, laguntza... Une haiek berreskuratzea zaila izango da. Eta pena da, hain zoragarriak izan ziren egun haiek, Gipuzkoa osoa ospakizunean murgilduta...”.

✓ **Errealean, Kortabarria eta Arkonada ziren nolabaiteko liderrak, gaur egun Larrañaga den moduan. Eurak dira gure gazteentzat eredu**

□ **Talde, blokearen garrantzia azpimarratzen duzu. Baina halakoetan ere beti egon ohi dira jokalarikarismatikoak, liderrak. Errealean ere bai?**

“Txapeldun izan ginenean talde osoak zeukan ikaragarrizko pertsonalitatea. Baina kontxo, Kortabarria edo Arkonadaren izakerak bereziak ziren oso, gauregun Larrañaga dagoen moduan. Horiek dira gure gazteentzako exenplurik onenak”.

□ **Hori Errealean. Eta gainontzeko taldeetan? Ba al zegoen estima berezirik zenion jokalaririk?**

“Pertsona moduan Garate eta Quini txapela kentzeko modukoak ziren. Jokalari oso onak izateaz gain, benetan gizon apartak ziren biak. Nik biak markatu nituen, eta nahiz eta askotan gogor xamar aritu, ez ziren inoiz asarretzen. Eta ez hori bakarrik; kasualitatez bultzada edo ostikada bat ematen zutenean berehala joaten ziren barkamena es-



katzera. *Fuera de serie* batzuk ziren biak.

Eta gero, jokalarik onenaren prototipo moduan Pirri jarriko nuke. Atzean, erdian, aurrean golak sartzen... nik ikusi dudana konpletoena bera zen, zalantzarik gabe”.

□ **Ikutu beharreko beste gai bat; arbitroak.**

“Buena buena. Espainiakolan ligan arbitroen gaia desastre hutsa da. Gehienak txarrak izateaz gain, presio handia jasaten dute, haundiegia. Eta horrela ezin dira gauzak behar bezala egin. Ez dago kriterio batasunik, eta segun eta ze ekipa daukaten aurrean, gauza bat edo beste erabakitzen dute. Igandean Errealari Madrilan pitatu zioten penaltia, adibidez, lotsagarria!

Irtenbidea? Profesionalismoa. Zenbat eta lehenago hobeto”.

□ **Oker ez bagabiltza zuk denetik jokatu zenuen Errealean. Zein postutan sentitzen zinen hobetoen?**

“Bai atezain ezik, beste toki guztietan jokatu nuen,

eta ez behin bakarrik, askotan.

Gustora-gustora... beharbada erdikaldean ibiltzen nintzen, aurrera begira, eskumaldeko interiore moduan. Baina tira. Jokatzu gero, edozein postutan sentitzen nintzen ondo”.

✓ **Garate eta Quini futbolaren munduan ezagutu ditudan pertsonarik bikainenak ziren. Jokalaririk konpletoena aukeratu beharrez gero, berriz, Pirri aipatuko nuke**

□ **Zuk badakizu zer den lesio gogor bat jasatea, 13 hilabete egon zinen geldia. Zer pasatzen da jokalariren burutik halakoetan?**

“Denetik pentsatzen duzu. Eskerrak jende askok animatu egiten zaituela.

Pertsona txar asko ere aurkitzen dituzu parean. Ni lesionatuta egon nintzenean, maleboloa hautsita, bateren

bat hor etorri zitzaidan letxe txarraz: ‘Zer, Gaztelu, laister Zerrajerara itzuli beharko zara, ezta?’. Hara, amorruek sekulako korajea eman zidan aurrera jarraitzeko; eta halaxe irten nintzen lesiotik, sentitu nuen amorrugatik.

Dena den, egun txarrak pasatzen dira, eta beharrezkoa izaten da taldekide eta entrenatzailearen animoa”.

□ **Zein da zuk gogokoen izan duzun entrenatzailea?**

“Andoni Elizondo, zailantza barik. Berak igo ninduen Sansetik Errealera, eta oso ondo portatu zen nerekin, beti. Harreman onak izan nituen berarekin, eta bihotzez sentitu nuen bere heriotza.

Hori Errealean. Baina Madinabeitiak Bergaran egin duen lana ere ezin dut ahaztu. Harek erakutsi zidan futbola maitatzen, eta berari esker joan nintzen Donostiara. Hura ere joan zaigu!”.

□ **Jokalarik euskaldunentzat, pena ere izango da Euskal selekzionerik ez egotea...**

“Horixe baietz. Eta nik

uste helduko dela eguna, lortuko dugula gure selekzioa. Lastima da, baina orduan seguraski ez dira azken urteotan izan ditugun mailako jokalaririk egongo. Hamar urtetik hona, Espainiako selekzioa matxakatzeko moduko taldea izan genezakeen, baina...".

✓ **Hamar urtetik hona, Euskadiko selekzioa egon izan balitz Espainiako matxakatzeko hainako taldea izan genezakeen, baina...**

□ **Bukatzeko, Gaztelu, zer eritzi duzu Errealaren zaletuei buruz?**

"Ona, oso ona. Beharbada berotasun gehiago eman beharko lukete Atotxan, baina ederto portatzen dira.

Akaso, azken boladan Uriarekin izan duten jokaera salatuko nuke. Txistu eta txistu mutilari, eta Madrileko golaren ondoren seguru igandean sekulako txalo zaparrada eskainiko diotela...

Dena den, eta zaletuei buruz ari garenez, nik Bilbotarrak gorapatuko nitzuke. Ez dut inon San Mamesen sortzen den giroa ikusi".



Gaztelu (ezkerrean Josean Alkorta eta eskubian Luis de Andia dituela) duela aste pare bat Perxa Elkartearen egin zitzaion omanaldian.

Kontu kontari

Behin, Matias Prats-ek Errealaren partidu bat eman zuen Atotxatik, eta Gazteluren jokuz txundituta gelditu. Egun batzuk geroago, Matiasek Errealaren beste partidu bat eman zuen Zaragotik. *Mañoek* donostiarren fitzak eman zizkiotenean, Matiasek zera bota zuen irratitik: *"Atención, señores, el jugador Gaztelu ha caído de la alineación titular, y en su lugar entra Agustín Aranzabal!!"*.

Errealak baditu gero bere bitxikeria izkutuak! Garai batean errito berezia egiten omen zuten gure jokalariek: aldagelan zeudela, partidua jokatu aurretik, sua egiten zuten bidoi antzeko baten. Gero, kantzontzillotan jarri, aurpegiak zertxobait pintatu, eta han ibiltzen ziren bidoiaren inguruan dantzaka, indixuak bailitzan, *Les vamos a machacar, les vamos a machacar* oihukatuz. Motibazio berezia hori!

Hamabost urte txuri-urdin jantzita

Agustin Aranzabal, Gaztelu, 65-66 denboraldian deitu zuten Sanse taldera.

Urte bete eman zuen han, entrenatzaile moduan Xabier Exposito eduki zuelarik. 27 partidu jokatu eta bost gol lortu zituen.

Hurrengo denboraldian, 66-67an hain zuzen, Andoni Elizondok lehen mailara igo, eta 1967ko urtarrilaren 29an egin zuen bere debuta Errealarekin, Algeciras taldearen kontrako kopako neurketan (1-0 irabazi zuten).

Ordutik, 307 partidu jokatu, eta 32 gol lortu zituen (19 Atotxan eta 13 kanpoan).

1979-80 denboraldian liga irabazi zuen Errealarekin, futbola utzi baino egun batzuk lehenago.

Kubalak bi aldiz eraman zuen Espainiako selekzio absolutora, Italia eta Chipreren kontra jokatzeraz.



Aste Santu zoragarri bat pasa nahi baduzu **HOLANDAN, ARITZETA ABESBATZA**rekin, **ANIMA ZAITEZ** eta eska ezazu informazio gehiago telefono honetan 7retatik 9retara: **76 24 56**
AZKAR IBILI plaza gutxi daude eta.



Tfnoa: 76 38 57
Irala 1


BERROYA, E. A.

INPRENTA

OFFSET - TIPOGRAFIA ENKUADERNAZIOA

Komenio 2
Tfnoa: 76 00 01

BERGARA



Txinpartak**□ piszinak itxita**

Agorrosingo Igerileku Municipalak itxita egongo dira hamar egunez, zenbait obra eta garbiketa egiteko. Hilaren 15ean itxi eta hilak 25ean (astelehena), berriz ere jendeari irekiko zaizkio ateak. Egun hortan igerilekuak eta squash pista zabalduko dira. Gimnasioa eta sauna, berriz, beranduago.

□ Futbola

Barzelonak eta Girondins frantziar taldeak Agorrosingo futbol zelaian jokatuko dute, Errealak Aste Santuan antolatzen duen jubenil mailako nazioarteko futbol txapelketako kanporaketako bat. Martxoaren 30ean (larunbata) izango da, arratsaldeko 5etan.


□ Eskalada

Apirilaren 8tik 20ra eskalada ikastaroa antolatuko da. Interesatuak jo Udaleko Kirol Zerbitzura.

□ Euskadiko itzulia

Aurtengo Euskadiko txirrindulari itzuliaren barruan, apirilaren 8an Deskargatik etorriko den tropela Bergararik pasatuko da.

Apirilaren 12an, goizeko sektorean, txirrindulariek berriro zeharkatuko dute gere herria. Arratsaldeko sektorean, itzuliari amaiera emateko, Elorriko-Elgeta erlojuaren kontrako proba jokatuko da.

Asteartean, XVII. Gorlara igoera

Datorren asteartean, hilak 19, San Jose egunean jokatuko da Gorlara Txirrindulari igoeraren XVII. edizioa.

Bergaran egiten den karrera denboraldiko lasterketarik ospetsuenetarikoa dugu eta aurtengoa ere afizionatu eta beterano mailako txirrindulari onenak bilduko dira. Goizeko 11.30etan emango zaio hasiera Martin Deunaren plazan beteranoen lasterketari eta eguerdiko 12etan afizionatu mailakoak irtengo dira toki beretik. Beteranoen artean, aurtengoa ere azken zazpi urteetan garaile gertatu den Koldo Lamikiz bergararra izango dugu faboritua.

Afizionatuetan, berriz, Bergarako lau txirrindularik parte hartuko dute: Mikel Leturia, Ion Ander Garitano, Igor Altuna eta ziklo-krosseko denboraldia amaitu berri duen Iñigo Igartua.

Gogoratu, iaz Xabier Lazpiur atxabaltarrak irabazi zuela probako errekorra markatuz 21 minutu eta 20 segunduko denboraz. Ezin ahaztu, halaber, lasterketako garaile izan diren, Alberto Fernández, Julian Gorospe, Pello Ruiz Cabestany edo Jesús Aranbarri.

Aurtengoa milioi erdi inguruko aurrekontua izango du probak eta 330.000 pezetan banatuko dira saritan.

Zortzigarren zaila

Azken zazpi urteetan Gorlara igoeran irabazle gertatu banaiz ere, astearte honetan, XVII. edizioarako gauzak ez ditut hain erraz ikusten.

Aurtengoa ez naiz gehiegi entrenatu, eta aurreko urteetako puntua ez dut oraindik lortu. Normalean, Gabon aurretik ekiten diot denborprestaketari, baina aurtengoa mendiko bizikletan asko ibili naizenez, duela gutxira arte ez naiz kaminuan aritu.

Seguruen ezin izango dut proba disputatzera irten. Nire anai gazteak, Jabierrek, irabazteko aukera hobea goak dituela uste dut, sasoiaren ikusten dut. Asteartea baino egun batzuk lehenago, urtero bezala, anaia eta biok, igoera batzuk egingo ditugu, taktika bion artean erabakitzeko. Aurtengoa lanak aldatu beharko ditugu eta ni bere gregario bihurtu beharko naiz. Biotatik bat garaile irtetzen bada konforme.

Felix Igarza bergararra ere izango dugu irteeran. Faboritotzat, berriz, Emaldi, Aguilera eta Francisko Perez joko nituzke.

Koldo Lamikiz

**IGERILEKUKO****TABERNA**

EGUNEKO MENUA
AURREZ ESKATUTAKO
AFARIAK

Tfnoa: 76 53 55



Rairabal
Gozotegia

Artekale 9, Tfnoa: 76 11 83

Bidekurutzeta 20 / 22 Tfnoa: 76 12 19



Hona hemen gaurkoan 1928ko udaberrian, Santa Ana palazioaren ondoan, errekatxoaren aurrekaldean ateratako erretratua.

Bertan josten ikasten ziharduen neska taldea ikus dezakezue, irakaslea ere tartean dutela.

Garai horretan, Villan izeneko kanpoko erretratugile famatua etortzen ei zen noizean behin Bergarara, eta hura etorri zenerako dotore asko preparatu ziren jostunak.

Ezkerretik eskumara hauek dituzue: Caximira ?, Anita (Aristizabal baserrikoa), Carmen Altuna, Maria Bilbao, Rufina Beistegi, Angelita Elgoibar (irakaslea), Nieves Ibarrola (zutik), Angelita Azkargorta, Maria Alzelai, Carmen ?, Catalina Alvarez, eta azkenik lurrean jarrita Juana Iñarra eta Maria Pikasarri.

Agurtzane Arriola

Oharra: Joan zen asteko erretratu zaharrea huts batzu egin genituen: Juanito Beitia (Aitzizabal) eta Ramon Iribekanpori (Agarretxo) ez genien gurutzerik jarri eta hilda daude; eta Benito Zenitagoiari (Agarretxo) gurutzea jarri genion eta bizi da. Bestalde, argazkia 1943koa da eta galde-ikurra sobra dago. Barkamenak denoi.

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 50 77





ETXEBIZITZA

- Pisu ederra salgai Irizar pasealekuan. Deitu 761708 Tfnoa.
- Pisua salgai edo alokairuan. Polita eta amueblatua. Deitu 762916 Tfno.ra, 21etatik aurrera.
- Amueblatutako pisu bat alkilatzen da denboraldi baterako. Tfnoa: 8615-55, edo 862301.
- Pisua behar dut alki-lerrean. Tfnoa: 764255.
- Pisua behar dut alokairuan. 765837.
- Pertsona bat behar du gu Mizpildin pisua osatzeko. 765837.
- Baserria salgai Berga-

ratik 3 km.ra. 770081, 10etatik 1etara eta 6etatik 8etara.

- Pisua salgai Koldo Elizalden. Tfnoa: 765823.
- Lokal komertziala alkilatzen da bolun. Tfnoa: 763797.
- Pisua salgai Olan, konpondua eta amueblatua. Modu onean. 761669.
- Soto eta garajeak salgai Martokuan. Tamainu ezberdinetakoak. 761078.
- Andereño batek pisu amueblatua behar du urte guztirako. Erdikaldean badago, hobe. Deitu gaeuz 760371 Tfno.ra.
- Pisua salgai; garaje eta guzti. 763911.
- Baserria alokatu nahi

dugu Bergaran.763431.

- Pisu edo buhardilla hartuko genuke alokairuan. 764735.

LANA

- 16 urteko neska euskaldunak umeak zainduko lituzke 3retatik 9ak arte. Tfnoa: 764061.
- Emakume bat eskaintzen da lanerako. 765403.

DENETARIK

- Ihauteri asteartean Poligonoko Ikastola inguruan argazki kamara bat galdu nuen. Zerbait badakizu, deitu mesedez telefono honetara: 763270.

- Pintura klaseak. Tfnoa: 764014 edo 763493.

- Ikasi josten zure astialdietan. 762858.
- 20,50 m2ko garajea alkilatzen da Burdifiaten. Egin berria. 764003.
- 55 m2ko lokala alkilatzen da. 765859, gaueko 9etatik aurrera.
- IPUIN dendaren albo-ko lokala alokatzen da. Galdetu Ipuin-en.

SALDU-EROSI

- Ibiza SXI automobila salgai. SS-AC. Deitu 9etatik aurrera 762268ra.
- Sofu bat salgai. Deitu 764195era.

Hildakoak

Eusebio Merchan Moreno
86 urte. Martxoak 7an.

Cristina Etxaniz Artetxe
78 urte. Martxoak 12an.

BERRIGARA

Eskatu eta etxean



76 03 97

Zuhaitzi

AFARIAK: Asteburuetan.
Aste barruan enkarguz

Espaloia 6 Tfnoa: 76 59 22 BERGARA

LETE
TOLDOAK

Kataide Pol/Ind. 14. Pab.
Tfnoa: 79 23 83 ARRASATE
BERGARA Tfnoa: 76 12 24
IURRETA Tfnoa: (94) 6 81 76 19

MUGIKA
Harategia

Irala 5, Tfnoa: 76 13 00 BERGARA

" 2 urtean euki dittugu euskaraikasliak
etxian eta oso gustora gare"

Julian Beitia (San Juango Aistizabal baserrikoa)

**UDAN
HILABETEZ
EUSKARA IKASLE BAT
ZEUEN ETXEAN**

50.000 pzta.ko dirulaguntza izango duzu.
Argibideak udaletxean, Euskara Zerbitzuan

Bergarako Udala



Euskara Batzordea

Husqvarna
Baso eta lorategietan.

**Husqvarna
HARTU, ESERI
ETA BELARRA MOZTU.**




8 H.P.
82 zm.ko kortea



**SEGAMAKINETAN
ESPEZIALISTAK**

ESKAINTZA BEREZIA!



Etorri eta ikusi, Brunet Merkataldenda, Ozaeta 11-13 an gaude